



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2016ko URRIAREN 4an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2016ko urriaren 4an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Uxue Etxebeste Eizagirre  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Xabier Mugika Letamendia  
Onintza Gorostidi Murua

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - 2016ko abuztuaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.
  - 2016ko abuztuaren 30ean egindako ez-ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2 . Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada.**
- 5. Areta-Martitegi herri bidea konpontzeko lanen esleipena, hala bada.**
- 6. Altzorbe-Bengoetxea herri bidea konpontzeko lanen esleipena, hala bada.**
- 7. Alkizako frontoian egin behar diren hainbat lanen esleipena, hala bada.**
- 8. Alkizako herri ostatuan biomasa bidezko berokuntza sistema jartzeko lanen esleipena, hala bada.**
- 9. Alkizako Katalandegi berri etxean hiru leiho irekitzeko obra baimena eskaera, X.G.**
- 10. Alkizako Jazkun etxeko terrazan aislamendua eman eta baldosa jartzeko obra baimena eskaera, I.A.**
- 11. Beleburupe guraso elkarteak eginiko eskaera aztertu, hala bada.**
- 12. Alkizako Herri Ostatuaren zerbitzu publikoaren kudeaketaren esleipenaren luzapena, hala bada.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**13. Oilategitik Kurtur Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**

**14. Beste batzuk.**

**15. Erregu, galdera eta mozioak.**

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2016ko abuztuaren 30ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2016ko abuztuaren 30ko ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

28/2016 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 31koa, A.D.P. Jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, festetan jostailu postu bat jartzeko baimena ematea, ebazten duena.

29/2016 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 31koa, , M.A.D.S. . Jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, festetan tiro pichon postu bat jartzeko baimena ematea, ebazten duena.

30/2016 Alkatetza Ebazpena, irailaren 20koa, Central Forestal eginiko eskaera onestea, hau da, Alkizako herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

31/2016 Alkatetza Ebazpena, irailaren 21koa, 2/2016 Kreditu aldaketari hasiera ematea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

MONTTE	637,67
CARPINTERIA METALICA SAVI	598,76
CALPARSORO INDUSTRIAL	106,60
AUDAX	168,66
AUDAX	163,94
AUDAX	90,93
ARGITU ASESORES	156,50
TOLOMENDI	152,50
ZURIARRAIN ITURGINTZA	893,79
JOSE JULIAN PEREZ	1.449,97
GAUZONAK	115,62
ARIMA COOL TOUR	665,50
MIRANDA URRESTARAZU KEPA	720,00
CORREOS	5,39
SOLRED	51,33
IZADI	152,94
GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA	54,00
IRATZAR ELKARTE MUSIKALA	2.057,00
MOVISTAR	80,32
MOVISTAR	71,52
EUSKALTEL	64,18
IBERDROLA	35,47
ANDONI LARRAÑAGA	605,00
LAU HAIZETARA	585,54
AKETEGI	62,00
AUDAX	60,50
AUDAX	22,26
AUDAX	59,05
AUDAX	153,88
AUDAX	13,68
AUDAX	41,80
AUDAX	37,65
AUDAX	66,09
AUDAX	56,31
AUDAX	107,62
AUDAX	96,01
DIONISIO ORMAZABAL	230,19
JAM ESPRESIO KULTURALAREN PROMOZIOA	963,00



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **11.653,17** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **2/2016 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Udala honen 2016 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

### **Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena**

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.141.153.40.01 2016	aguazilaren laguntzailea	0,00	1.820,00	1820,00
1 0000.163.920.00.05 2016	Pertsonalaren bizi a. administra.	850,00	46,00	896,00
1 0000.210.161.00.01 2016	UR AZPIEGITURA MANTENIMENDUA	5.000,00	1.000,00	6.000,00
1 0000.211.230.00.01 2016	Don Juanena etxeko konponketak	1.000,00	1.000,00	2.000,00



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

1 0000.211.320.00.01 2016	Eskolako konponketak	1.000,00	1.500,00	2.500,00
1 0000.211.920.00.01 2016	Udal eraikinen konponketak	2.500,00	3.000,00	5.500,00
1 0000.220.920.00.01 2016	Bulego materiala	2.000,00	600,00	2.600,00
1 0000.220.920.00.02 2016	Prentsa, aldizkari eta veste	100,00	150,00	250,00
1 0000.221.153.40.04 2016	Erregai eta karburanteak	1.000,00	200,00	1.200,00
1 0000.221.166.00.01 2016	Fosako argindarra	1.300,00	500,00	1.800,00
1 0000.221.340.00.01 2016	Frontoiko argindarra	500,00	150,00	650,00
1 0000.222.920.00.01 2016	Udala telefono gastuak	2.000,00	300,00	2.300,00
1 0000.226.330.00.06 2016	IHARDUERA SOZIOKULTURALAK	1.000,00	500,00	1.500,00
1 0000.422.491.00.01 2016	Tolosaldeko komunikabideak	1.200,00	248,00	1.448,00
1 0000.481.340.00.03 2016	Aiztondo Klasika	1.800,00	127,00	1.927,00
1 0000.626.920.00.02 2016	Udaleko ordenagailua	0,00	638,00	638,00
1 0000.601.153.20.01 2016	Herri bideak konponketa	0,00	47.897,00	47.898,00
1 0000.683.933.00.01 2016	Herri ostatuko aparatuak	1.000,00	14.598,00	15.598,00
1 0000.629.172.00.03 2016	Ondare natural-kulturala	0,00	22.408,00	22.408,00
1 0000.622.342.00.01 2016	Frontoiaren berrikuntza	0,00	13.364,00	13.364,00
1 0000.421.162.10.01 2016	Tolosaldeko Mankomunitatea bilketa	11.307,00	1.500,00	12.807,00
1 0000.421.162.30.01 2016	Tolosaldeko Mankomunitatea tratamentua	8.080,56	4.800,00	12.880,56
1 0000.421.162.20.01 2016	Tolosaldeko Mankomunitatea kudeaketa	6.519,84	500,00	7.019,84



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

<b>GUZTIRA</b>		48.157,40	116.846,00	165.003,40

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.000.00.03 2016	Ostatua(biomasa)	9.842,83
c	2 0000.720.000.00.05 2016	Ondare natural-kulturala	9.464,26
c	2 0000.727.000.00.07 2016	Frontoia	6.681,00
c	1 0000.720.000.00.09 2016	Herri bideak	33.527,90
a	1 0000.870.000.00.01 2016	Kreditu gerakina 2015	57.330,01
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>116.846,00</b>

**BIGARRENA.-** Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

**HIRUGARRENA:** 2016ko irailaren 21ean egindako Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

“Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2016rako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3.erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

“Kontuan izanda 2016rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko eta 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturako duena.

Dena den, gaikuntza espedienteak honako finantziarioa du :

-Sarreraren gehitzea.....59.515,99€  
-Diruzaintza gerakina.....57.330,01€

Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **ARETA-MARTITEGI HERRI BIDEA KONPONTZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Areta-Martitegi herri bidearen konponketa lanak egiteko asmoa duela Alkizako Udalak.

Ikusirik Areta-Martitegi herri bidea konpontzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa ingurune eta Lurralde Oreka departamentuak, 19.990,60 eurotako diru-laguntza esleitu diola Alkizako Udalari.

Ikusirik, aipaturiko bidea konpontzeko lanak esleitzeko hiru aurrekontu eskatu direla, nahiz eta kontratu txiki bat izan. Eskatutako aurrekontuak, ondorengoak izanik: Bixente Otegi Lizaso, S.L., Landa e Imaz, S.A. eta Orsa, S.L.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den, Eneko Iturbe aparejadoreak, aurkezturiko hiru aurrekontuak aztertu eta ondoren egindako txostenean dioena, non Bixente Otegi Lizaso, S.L. enpresak aurkezten dituela orokorrean prezio unitario merkeenak, ondorioz, bere esleipen proposamena Bixente Otegi Lizaso, S.L enpresaren alde izango da.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Areta-Martitegi herri bidearen konponketa lanak egiteko onespena.

BIGARRENA: Areta-Martitegi bidea konpontzeko lanak Bixente Otegi Lizaso, S.L enpresari esleitzea, 19.055,44 eurotako diru kopuruan. Lanak amaitzean metroen neurketa zehatza egingo delarik.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Gastua 2016 aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Bixente Otegi Lizaso, S.L., Landa e Imaz, S.A. eta Orsa, S.L. enpresei ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **ALTZORBE-BENGOETXEA HERRI BIDEA KONPONTZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Altzorbe-Bengoetxea herri bidearen konponketa lanak egiteko asmoa duela Alkizako Udalak.

Ikusirik Altzorbe-Bengoetxea herri bidea konpontzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa inguruneke eta Lurralde Orekako departamentuak, 13.537,30 eurotako diru-laguntza esleitu diola Alkizako Udalari.

Ikusirik, aipaturiko bidea konpontzeko lanak esleitzeko hiru aurrekontu eskatu direla, nahiz eta kontratu txiki bat izan. Eskatutako aurrekontuak, ondorengoak izanik: Bixente Otegi Lizaso, S.L., Landa e Imaz, S.A. eta Orsa, S.L.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den, Eneko Iturbe aparejadoreak, aurkezturiko hiru aurrekontuak aztertu eta ondoren egindako txostenean dioena, non Bixente Otegi Lizaso, S.L. enpresak aurkezten dituela orokorrean prezio unitario merkeenak, ondorioz, bere esleipen proposamena Bixente Otegi Lizaso, S.L enpresaren alde izango da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Altzorbe-Bengoetxea herri bidearen konponketa lanak egiteko onspena ematea.

BIGARRENA: Altzorbe-Bengoetxe bidea konpontzeko lanak Bixente Otegi Lizaso, S.L enpresari esleitzea, 13.176,42 eurotako diru kopuruan. Lanak amaitzean metroen neurketa zehatza egingo delarik.

HIRUGARRENA: Gastua 2016 aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidaren kargura egitea.





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Bixente Otegi Lizaso, S.L., Landa e Imaz, S.A. eta Orsa, S.L. enpresei ematea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**ALKIZAKO FRONTOIAN EGIN BEHAR DIREN HAINBAT LANEN**  
**ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Frontoiaaren konponketarako hainbat lan egiteko asmoa duela Alkizako Udalak.

Ikusirik Alkizako Frontoiaaren konponketarako hainbat lan egiteko Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta kirol departamentuak, 6.681,00 eurotako diru-laguntza esleitu diola Alkizako Udalari.

Ikusirik, lanak bitan banatzen direla: batetik pilotalekuko kontrakantxako eraberritze lanak, eta bestetik kantxako ezker paretan, hormako ur isurien konponketa lanak.

Ikusirik, aipturiko lanak esleitzeko, hau da, pilotalekuko kontrakantxako eraberritze lanak, Cubiertas Pagola, Tejas y cubiertas Lopetegi, S.L. eta Cubiertas Gutierrez S.L. –ri aurrekontuak eskatu zaizkiela, nahiz eta kontratu txiki bat izanik.

Ikusirik, Eneko Iturbe Rekondo, Udal Aholkulari Teknikoak, aipturiko aurrekontuak aztertu ondoren, eginiko esleipen proposamena, non CUBIERTAS PAGOLA enpresari esleitzeko proposamana egiten duen, 10.798,38 eurotako diru-kopuruan.

Bestalde, kantxako ezker paretan hormako ur isurien konponketa lanak egiteko Aterki enpresari aurrekontu bat eskatu zitzaion, Udal Aholkulari Teknikoaren txostenean proposatzen delarik berari esleitzea, 2.988,70 eurotako diru-kopuruan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Alkizako Herri pilotalekuaren konponketarako hainbat lan egiteko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako pilotalekuko kontrakantxako eraberritze lanak, Cubiertas Pagola enpresari esleitzea, 10.798,38 eurotako diru kopuruan.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Alkizako pilotalekuko kantxako ezker paretan hormako ur isurien konponketa lanak egiteko Aterki enpresari esleitzea, 2.988,70 eurotako diru kopuruan.

LAUGARRENA: Gastua 2016 aurrekontuetako 1 0000.622.342.00.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Cubiertas Pagola, Tejas y cubiertas Lopetegi, S.L., Cubiertas Gutierrez S.L. eta Aterki enpresari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO HERRI OSTATUAN BIOMASA BIDEZKO BEROKUNTZA SISTEMA JARTZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Herri Ostatuan, biomasa bidezko berokuntza sistema jartzeko asmoa duela Alkizako Udalak.

Ikusirik Alkizako Herri Ostatuan, biomasa bidezko berokuntza sistema jartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa inguruneko eta Lurralde Oreko departamentuak, 9.842,83 eurotako diru-laguntza esleitu diola Alkizako Udalari.

Ikusirik, aipturiko lanak esleitzeko Fontaneria Antzieta, S.L. –ri aurrekontua eskatu zaiola, kontratu txiki bat izanik. Bere zenbatekoa 14.597,31 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Alkizako Herri Ostatuan Biomasa bidezko berokuntza sistema jartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Herri Ostatuan Biomasa bidezko berokuntza sistema jartzeko Fontaneria Antzieta, S.L. –ri enpresari esleitzea, 14.597,31 eurotako diru kopuruan.

HIRUGARRENA: Gastua 2016 aurrekontuetako 1 0000.683.933.00.01 partidaren kargura egitea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Fontaneria Antzieta, S.L. enpresari ematea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**ALKIZAKO KATALANDEGI BERRI ETXEAN HIRU LEIHO IREKITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, X.G.**

Ikusirik X.G. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Katalandegi Berri etxean hiru leiho irekitzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2016ko urriaren 3an eginiko txostenean dioena:

**“ALKIZAKO “KATALANDEGI BERRI” ETXEAN HIRU LEIHO IREKITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*X.G. jaunak, Alkizako “Katalandegi Berri” etxean hiru leiho irekitzeko obra baimena eskatzen du, lanen aurrekontua eta fatxada ezberdinen bi plano aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, hiru leihoak Katalandegi Berri-ko etxearen behe oinean egin nahi dira; bi sarrera ondoan eta bestea atzealdean. Leihoak haritz egurreko kanpo itxura duen aluminiozkoak izango dira, leihatilak egurrezkoak, lanen aurrekontua 2.055,90 €-koa izanik (BEZ-a gabe).*

*Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.*

*“Katalandegi Berri” etxea Alkizako lur hiritargarrin kokaturik dago, bereziki “UEU21 hirigintzako gauzatze unitatean”. Alkizako lur hiritargarriko UEU21 fitxaren irizpide nagusia eraikinaren mantentzea da.*

*Leihoen irekiera hau argiztapenaren gehiagotze bat izanik, Katalandegi Berri etxearen bizigarritasun baldintzen hobekuntza bat bezala uler daiteke eta eraikinaren kanpo itxurarekin bat egiten duenez, lanak baimengarriak direla informatzen dut.*

*\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*\*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.\**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- X.G. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Katalandegi berri etxean hiru leiho irekitzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO JAZKUN ETXEKO TERRAZAN AISLAMENDUA EMAN ETA BALDOSA JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.A.**

Ikusirik I.A. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Jazkun etxeko terrazan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2016ko urriaren 3an eginiko txostenean dioena:

### **“ALKIZAKO “JAZKUN” ETXEKO TERRAZAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*I.A. jaunak, “Jazkun” etxeko terrazan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako idatziaren arabera, "Jazkun" etxeko terraza inpermeabilizatu nahi da. Lan hauen aurrekontua, 3.643,50 €-koa da (BEZ-a gabe).*

*2/2006 Lurzoru legearen 199 artikulua arabera, "Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako,*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*behar diren kontserbatze eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.”*

*Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.*

*“Jazkun” etxea Alkizako lur ez hiritargarran kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrean. Arau subsidiarioen arabera eraikinak ez du katalogazio berezirik.*

*Alkizako lur ez hiritargarriko aldatutako araudiaren arabera, aurretik hor dauden baserriak kontsolidatuak gelditzen dira, barne eta kanpo moldaketak onartzen direlarik.*

*Aurkeztutako lanak, kontserbatze lanak izanik eta Alkizako arau subsidiarioekin bat eginik, baimengarriak direla iruditzen zait.*

*\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

*\*Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- I.A. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Jazkun etxeko terrazan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

**HAMAIKAGARREN PUNTUA**

**BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU,  
HALA BADA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik Beleburupe guraso Elkarteak eginiko eskaera, non ondorengoak dioen:

*“Beleburupe Guraso Elkartearen izenean ondoko egoera baten berri eman nahi genizueke Alkizako Udalari.*

*Azkeneko urte hauetan Alkizako guraso elkartetik eta eskolarekin etengabeko harremanean egiten ari garen lana dela medio, egoera eta ondorioz kezka baten aurrean aurkitzen gara. Eskola bizitza haur, ikasle, irakasle eta gurasoen arteko harremanetan sustatzen dela deritzogu eta bai eskolan eta ondorioz baita ere gure herriko plazan sortzen diren tentsio guneak eta jokabideak kezka sortzen digute. Bai eskola eta hala nola guraso elkarteak ere egoera hauek areagotu ez daitezten elkarlanean ari gara, horrela elkarbizitza egokiago bat sustatzeko asmoz. Horretarako eta batez ere pasa berri den kurtso honetan eskolan hainbat ekintza eman dira helburu honi berri den kurtso honetan eskolan hainbat ekintza eman dira helburu honi begira, hala nola Gorputzaldia saioak (elkar gerturatzeko eta komunikatzeko beste modu batzuk ikasiz), Baikara saioak umeekin (umeen arteko harremanak aztertuz eta bideratuz), Ataria gabinetetik psikologikoa (aholkua eta hainbat egoera nola bideratu erakutsiaz), gurasoekin Baikarako tailerra (gurasoak ere prozesuan parte hartu dezaten),...*

*Horrela bada eta Guraso Elkartetik eta eskola kontseiluan hala erabaki ondoren datorren kurtSORA begira Guraso Eskola bat martxan jartzea erabaki genuen. Horrela eta ekintza honen funtsa eskola egiten ari den bidea elkarrekin egitea da.*

*Guraso Eskolan guraso talde bat elkartzen da eta psipedagogo baten laguntzaz elkarrekin hezkuntza modelo bati helduz gure umeen hezkuntza eta egunerokotasunean sortzen diren kezkak argitzen eta bideratzen saiatzen dira. Horrela gurasoak beraien umeekiko hezkuntzan pauso zehatzak eman ditzakete eta hala nola geure umeekin dugun harremana sendotu eta guraso bezala gure umeen hezkuntzan dugun arduraz jabetzea da.*

*Alkizako Beleburupe Guraso Elkartetik Alkizako Udalari honako eskaera hau egin nahi diogu: Guraso Eskola antolatzeak duen kostu altua ikusirik, hala nola jarraipena eman nahi geniokeen ekintza dela kontutan izanik, zuen laguntza eskatuaz datorkizugu horrela bai uma, guraso eta herritarren arteko errespetuzko elkarbizitza bat pausatzeko bidean lagun gaitzazuen.*

*Besterik ezean zuen erantzunaren zain gaituzue.*

*Beleburupe Alkizako Guraso Elkarteak*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe Alkizako Guraso Elkarteari guraso eskola antolatzeak duen kostuaren finantzaketa gastuan, diru-laguntza ematea, aurrez Guraso elkartearekin adostutako baldintzak betetzeko konpromisoarekin.

BIGARRENA: Alkizako Udalak Guraso Elkarteari emango dion diru-laguntza, Guraso eskola antolatzeak suposatzen duen kostuaren heren bat izango da. Diru-laguntzaren ordainketa egiteko Udaletxe honetan dagokion faktura aurkeztu beharko da.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako Beleburupe Guraso Elkarteari ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO HERRI OSTATUAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETAREN ESLEIPENAREN LUZAPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2016ko apirilaren 19an, 2016/09 Alkatetza ebazpenean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa K.M. jaunari eman zitzaiola sei hilabetez, hau da, 2016ko maiatzaren 1etik urriaren 31arte, prozedura zuzenez, ateratako lehiaketa hutsik gelditu ondoren herri ostatua bost hilabetez itxita egon zelarik.

Ikusirik aipaturiko sei hilabeteak igaro direla eta bai K.M. jaunak eta Udaletxeak ados agertzen direla, K.M. jaunari Alkizako Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketarekin jarraitzea, urte betez kontratua luzatzea proposatzen delarik, hau da, 2016ko azaroaren 1etik 2017ko urriaren 31arte.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.M. jaunari Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua urte betez luzatzea (2016ko azaroaren 1etik 2017ko urriaren 31arte). Epe hau bukatu ondoren, Udalak berriro baldintzak aztertuko ditu, eta ondoren (bi alderdien on iritziarekin) dagokion luzapena emango duelarik.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, kontratu luzapena sina dezan.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri K.M. jaunari ematea.

**HAMAIRUGARREN PUNTUA**  
**OILATEGITIK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA**  
**ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaeran dioena, hau da, Oilategitik 16. Alea ordaintzeko, Alkizako Udalari 2.000 eurotako diru-laguntza eskatzen die, euren jarduerarekin jarraitu ahal izateko.

Gaia azterturik, Jose M<sup>a</sup> Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatzak gehiengoaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako Udalak 2.000 eurotako diru-laguntza ematea onesten du.

BIGARRENA: 2.000 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Oilategitik Kultur Elkarteari jakitera ematea, Udalak emandako diru-laguntza zuritu egin beharko duela, dagozkion gastuen berri Udal honi emanaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oilategitik Kultur Elkarteari ematea.

**HAMALAU GARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

**HAMABOST GARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*